

**EUSKALDUNON JAIA**



● Dantza egiten ttikitatik hasi behar da. Begira, bestela, bi nes-kato ponpoxo hauei. A.GILLENEA




● Egun osoa ekitaldi oparoz bete egon zen, bertsolariak, herri kirolak, kantariak... jendea ase gabe gera ez zedin. Publizitate agentzia bat ere ipini zen bertan. Lizarditan kopuru bat ordaindu eta edonork mezu bat idatz zezakeen, honela mota eta itxura ezberdinetako mezuak itsatsi zituen jendeak. Bazkalostean hasitako euriak ez zuen animoa apaldu eta ilunabarrean aurrera zihoan festa. Galtzaragaina gunean Izotz eta Kazkabarra taldeen emanaldiak soilik geratu ziren bertan behera. Gai nontzekoak bete egin ziren.




● Hego eta Iparraldekoen artean izandako rugby partiduen garaipena Hegoaldekoentzat izan zen. GILLENEA



● Pottoka abeslari nafarraren txanda izan zen arratsaldeko seiak aldera Futbol zelairean gunean. Han ere jende apur bat bildu zen eguraldiak horretan lagundu ez arren, arratsaldean euri zaparrada dexente egin bait zuen. A. GILLENEA



● Jon eta Aitor Sarasua, Rikardo Glez de Durana, Nikolas Inzeta, Igor Elorza eta Unai Iturriagak bertso saio polita eskaini zuten. Amaitu ostean berriro igo ziren jendeak ohiuka hala eskatu zien eta. LEIRE ARZUAGA



● Publizitate modulu ugari idatzi ziren, batzuek beren lagunak bilatzeko, salaketak edo umorezko abisuak jartzeko bestek. Nahiko arrakasta izan zuen, dena den. A. GILLENEA